

EKONOMIA ETA FINANTZAK

AURREKO DENBORALDIAK

Lehengo urtean berritutako administrazio kontseiluak 2008an kluba kudeatzeko ardura hartu zuenetik, finantza egoerari dagokionean, egoeraren iraulketa sakona jasan dute klubaren diru kontuek. Kirol arloan Lehen Mailan berriz aritzeko eskubidea berreskuratu eta historikoki Espainiako ligan Realak izan duen posiziotik gertu aritzearekin bat, hartzekodun konkurtsoaren ezarpenak eta beronen kitapen aurreratuak (jokalariengatiko ezohiko diru sarrerekin bat), telebista eskubideengatiko hazkunde indartsuarekin bat eginda, Anoetako eraberritzea prestatu eta martxan jartzerainoko bidea suposatu du.

GAUR EGUNGO EGOERA ETA TESTUINGURUA

Pasa den ekainean itxitako ekitaldiaren kontuetatik, lehengo urtetik aurrekontu moduan espero ziren sarrera eta gastuekiko espero zena baino zifra altuagoak eman dira berrero ere (azken ekitaldietan gertatu den moduan, aurreikusitakoarekiko gastuak 25 milioi € gehiagokoak eta sarrerak 39 milioi gehiagokoak izanik). Hori dela eta, 2017-2018 ekitaldian espero ziren 15 milioi euroko irabaziak 28 milioi eurotakoak izan dira azkenean, hala Klubaren ondareko funts propioak ia 60 milioi euro arte haziaraziz.

Lehengo ekitaldiaren zenbakiak eta aurtengorako aurreikusitakoak aztertuta, honako hauek aipatu daitezke besteren artean:

- Hartzekodunen konkurtsoagatiko zorra guztiz kitatu da joan den denboraldian ordaindutako azken 1,3 milioi euroekin.
- Abonu eta partidatiko txartelen sarreren aldetik, Europa League jokatzearen harira iazko ekitaldian ia 7 milioi euroko zifra berreskuratu zen, eta aurtengora begira %7 igoko dela espero da. Anoeta eraberrituari esker handitutako harmailatako batzuen aprobetxamenduaren arren, ipar hondoak denboraldi osoan zehar erabilerarik ez du izango.
- Telebistagatiko eskubideen hazkunderik ez da espero, lehengo urteko Europa Leagueko parte hartzeak bultzatutako ia 57 milioi euroetatik, aurten 55 milioira jaitziko dela aurreikusten baita.
Babesle-publizitatearen aldetik, lehengo urteko gorakadari eutsi eta 7,2 milioi eurotaraino hazteko asmoa du Kontseiluak.
- Ohiko gastuen artean, nabarmena da lehengo urterako aurreikusten ziren soldaten kopurua 52 milioietatik oso gora igo izana azkenean, ia 63 milioi t'erdiraino. Aurtengorako, azken zifra horrekiko 2 milioiko murrizketa gauzatuko dela espero da. Perspektiban hartuta, arduratzeko modukoa dirudi bi denboralditan soldata +

amortizazioen pisua kontuetan, ohiko sarrerekiko (bazkide/txarteldegia + TB eskubideak + Babesle-Publizitatea, nagusiki) %76 izatetik %97 izatera pasa izana.

- Kontseiluak afera honetan arrazoa emango diotela uste badu ere, Rubin Kazanen finantza egoerak Jonathasen salmentagatiko ia 9 milioi euroak ez dituela jasoko aurreikusten da. Jokalarien salmentekin jarraituz, uztailean hitzartutako Odriozolagatiko kopurua da Kontseiluak aurreikusten duen bakarra 18-19 denboraldirako.
- Honezkero, lehengo denboraldiko Anoetako lanengatik Realak 17 milioi euro ordainduak ditu, ia 16 milioi lizitatutako lanetan eta gainerakoa plangintzatik kanpoko bestelako atontze lanetan.

Anoetaren eraberritze horretan, Donostiako Udala-Anoeta kiroldegiak lehiaketa bidez finkatutako lanek Realaren 36 milioi euro arteko konpromisoa dute atzetik (akziodunen 2015eko adostasuna medio). Inbertsio hori aurrera eramán ahal izatean zerikusi zuzena du azken urteetako finantza emaitzek irabazi mardulak eskaini izanak, eta beraz irabazi hauen metaketak, bizpahiru urtetan [36 milioi horiek baina handiagoa izaten bukatuko duen](#) inbertsioa aurrera eramán ahal izateko eguneroko aktibitatean normaltasuna mantenduta.

Finantza egiturán, aurtengo ekainaren 30eko kontuak aztertuta eta datozkion ordainketei aurre egiteko, klubak honakoak prest ditu:

- Ia 14 milioi euro diru xehean kontu korrontean.
- 15 milioi euro arteko kreditu-lerroak irekita eta erabili gabe Rural Kutxa, Caixabank eta Sabadell finantza erakundeekin, epemuga ezberdinekin.
- Kutxabankekin 2018 uztailean hitzartu den 5,55 milioi euroko kreditua, 7 urtetan zehar ordainduko dena.

Gauzak horrela, inoiz baino nabariagoa da Klubaren sarrera egitura eta Anoetako erreformaren ordainketa beharrak ikusita, bestelako ezohiko edo klubaren kontrol zuzenik gabeko iturriak alde batera utzita, berritutako Anoetaren aprobetxamenduak Realean hurrengo urteetako bilakaera definituko duela: Europako lehiaketatan urtez-urte ohiko bihurtzen ez bada, jokalarien salmenta bidez kontuak orekatzeko beharrik ez izateko era nagusia abonatu, babesle eta partida egunetako sarrerén hazkunde garbia lortzea litzateke. Horretan buru-belarri jardun eta neurri zehatzekin asmatzea ezinbestekoa izango da, berandu baino lehen.